

ONDARROAKO BASERRI AZOKAKO OINARRIAK

HELBURUA

Lea-Artibai eskualdean lehen sektoreak orokorrean eta lurreko produktuek izan duten eta daukaten garrantzia kontuan izanik, ezinbesteko jotzen da herritarrengana produktu hauek hurbiltzeko ekimenak aurrera eramatea.

Ondarroako udalak ulertzen du lehen sektorea garrantzitsua dela ekonomiarentzat, ingurumenarekiko errespetuarentzat, kontsumo jasangarriarentzat eta biztanleriaren osasunarentzat eta funtsezko sektore izanda, bere bideragarritasunean laguntzeko hainbat ekimen aurrera eramaten ditu, besteak beste, azokak.

Landa eremuaren garapena helburu izanik, oinarritzkoa da ustiategi txikien bidez produkzio tradizionalaren eredua mantentzea eta berau herritarrengana hurbiltzeko ekimenak aurrera eramatea. Azokak, zein bestelako ekimenak, funtsezko dira sektore honen bideragarritasuna bermatzeko.

Hartara, azokak ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko topaketa eta salmenta gune bat sortzen duenez gero, kontsumitzaileak bertan ekoiztutako elikagaien balioaz jabetzeko aukera ematen du. Eta horrekin batera, aukera ematen du garen bezala agertzeko, udalerrri euskalduna gurea, herritarrak euskaraz bizi dira nagusiki, eta horregatik, euskarak duen arnagunerik zabalenetako bat da. Horri eutsi nahi dio udalak, eta horregatik, azokan euskaraz jarduteko gogoia piztu nahi du, hori ere naturala eta garrantzitsua delako.

Azoka hau Ondarroako udalaren ardurapean dago antolaturik. Ondarroako udalak Lea Artibai Landa Garapen Alkarteari laguntza eskatzen dio antolakuntzan, dokumentazioa prestatu eta balorazioa jasotzeko.

APLIKATZEKO EREMUA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak bere 17. artikuluan dioenez, udalek hainbat esparrutan eskuduntza propioak erabili ahal izango dituzte, eta horietako batzuk harreman zuzena dute udalen toki publikoetan jarduerak egiteko kontuan hartu beharreko antolatze lanekin. Horien artean, hauek nabarmenduko ditugu:

- Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
- Establezimendu publikoak eta jolas jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
- Barne merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta *kudeatzea*.

Horretaz, Ondarroan 2026ko abuztuaren 1ean antolatuko den nekazaritza eta ekoizpen azokarako aplikatuko da. Azokaren ordutegia 10:00etatik 15.00ak arte izango da.

Antolakuntzak 18 postu jarriko ditu, BBKk lagatako etxolak, eta eurretan salmenta egiteko, aurrez eskaria egin ostean, Ondarroako udalaren baimena duenak izango du aukera.

Azokan parte hartzen duten postuek ez dute lurraren erabileraren truke inolako tasarik ordaindu beharko.

BAIMENTZEN DIREN PRODUKTU ETA POSTUAK

- Baimenduta egongo diren produktuak izango dira osasuneko arriskurik sortzen ez dutenak, berezko autoritateen iritziz, eta noizbehinkako kaleko salmentarako indarrean dauden araudiak debekatzen ez dituztenak.
- 51/2024 DEKRETUA, apirilaren 30ekoa, hurbileko salmentaren bidez merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioei eta trazabilitate-, etiketatze- eta publizitate-baldintzei buruzkoa.
- Legez eta araututa dauden bestelako baldintza guztiak bete beharko dira.
- Postuen kokapena antolatzaileak erabakiko du produktu mota, okupatzen duten espazioa eta momentuko egoera eta baldintzen arabera, beti ere aukeren berdintasuneko irizpidea kontuan hartuko delarik.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Udal baimena izatea (eskaria aztertu ostean dagokionari emango zaio).
- Salgai jartzen diren produktuak norberak ekoiztuta izan behar dira. Ez da birsalmentarik onartzen.
- Bere jarduera ekonomikoagatik dagozkion jarduera ekonomikoko epigrafean eta gizarte segurantzian alta emanda egotea eta ordainketetan egunean egotea.
- Indarrean dagoen araudiaren arabera nekazaritzako sailak daukan erroldan alta emanda egotea.

JARDUERA	REGIPA	REGA	RGSEAA	REACAV	RIAA ¹
EKOIZPEN PRIMARIOA					
Landare jatorria	X				
Animalia jatorria		X			
ERAGIKETA LOTUAK²					
Landare jatorria	X				X
Animalia jatorria		X			X
TRANSFORMAZIOA³					
Konbentzionala			X		X
Malgutua ⁴				X	X

(1) Azoka edo feria ekoizpenaren tokiko inguruko eremuan bada, ez da RIAAn inskribatu beharko.
Industria agraria y alimentaria: instalaciones capaces de funcionar como empresa autónoma cuyos productos no sean comercializados exclusivamente al consumidor final ni a mercados de la propia localidad.

(2) Landareak: adib. Ekoizpen lekuan landareak sailkatzea eta ontziratzea (Gida: 23. orria)
 Animaliak: adib. Erlezainaren instalazioen barruan ezta ontziratzea

(3) Transformazio jardueraz gain, ekoizleak ekoitzi ere egiten badu, REGAn edo REGEPAn ere egongo da, bietatik dagokionean. (Gida: 25. orria)

(4)EAEko malgutzearen barne badago. (Gida: 50. orria)

- Merkaturatzen dituen produktuen arabera berezko araudiak ezartzen dituen baldintza higieniko sanitarioak eta bestelakoak betetzea.
- Ekimena gauzaten den egunean salmenta justifikatzen duen agiria jaurtitzeko gaitasuna (salmentako agiria edo tiketa).
- Ontziratutako produktuen kasuan ustiakuntza edo eraldatzeko zentroaren kodearekin identifikatzea.
- Salduko diren produktuak arautzen dituzten baldintza higieniko sanitarioak eta bestelako arauak (mantenimendu, garraio eta manipulatzekoak besteak beste) ezagutu eta betetzen dituela aitortzea bere erantzukizun bakarraren pean.
- Autonomo edo mikroenpresa izatea Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduarien I. eranskinean ezarritako irizpideak jarraituz.

Elikagai guztiak enpresa baimenduetakoak izango dira, RGSEAAn edo REACAVn edo Lehen Sektoreko Produkzio Erregistroetan inskribatuta egongo dira, eta behar bezala identifikatuta egongo dira beren jatorria justifikatzen duten etiketekin, fakturekin edo albaranekin.

IRIZPIDEAK

Ekimen bakoitzak daukan ezaugarriak kontuan hartuta produktu ezberdin bakoitzaren saltzaile kopurua mugatua izango da, produktu tipologia bakoitzerako ondorengo mahai kopuru mugak izango dira:

	ONDARROA
Ortuariak eta frutak	2
Gaztagintza eta esnekiak	2
Ogia eta gozogintza	4
Haragiki-ahatekiak	3
Kontserbak	2
Eztia	1
Edariak	2
Beste produktu batzuk	2

Era berean, atalaren edo produktu motaren arabera baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen kopurua aurreikusitakotik beherakoa bada, antolakuntzak eskubidea izango du beste ataletan emandako postuen kopurua handitzeko edo ezarritako baldintzak betetzen dituzten, baina eskaera ezarritako epean aurkeztu ez duten beste produktore eta/edo egile batzuk gonbidatu ahal izateko.

Lehentasanak erabakitzeke eta eragileak esleitzeko momentuetarako ondoko irizpideak erabiliko dira. Produktu mota baterako puntuazio berdina lortuz gero zozketa bidez esleituko da postua.

Elikagaien salmentarako postuak esleitzerakoan, azoka bakoitzerako banan-banan honako alderdi hauek baloratuko dira, bakoitzaren puntuazioarekin, gehienez 47,5 puntu lortu daitezkeelarik:

- Titulu Nagusiko Baserritarra (ATP) izatea: 5 puntu.

- Emakume izatea (sozietateen kasuan emakume bazkideen proportzioan kalkulatu da): 5 puntu.
- Elaboratutako salgaien kasuan, nor bere etxaldean sortutako lehengaiak erabiltzeagatik: 5 puntu.
- Elaboratutako salgaien kasuan baimendutako instalazio propioak dauzkaten ustiategiak: 5 puntu.
- Euskal Erkidego Autonomoko kalitateko marka babestuak (Eusko Label, Idiazabal Jatorri Deitura, Bizkaiko Txakolina Jatorri Deitura, Euskal baserri,...): 5 puntu izendapen bakoitzagatik. Gehenez 15 puntu lortu ahal dira.
- Produktuen etiketak euskaraz edukitzea: 3 puntu
- Fakturak euskaraz edukitzea 3 puntu
- Barra-Barra, Bai Euskarari edo gisa horretako egiaztagiri baten jabe izatea: 4 puntu
- Ingurumenarekiko jasangarritasun irizpideak:
 - Produktuak garraiatzeko ibilgailu elektriko edo hibridoa erabiltzea: 2,5 puntu
 - Jasangarritasuna eta kutsadura ekiditeko helburuarekin, ekimena egingo den puntutik produktuaren jatorria daukan zentrorainoko 1 kmko distantzia bakoitzagatik (beti ere errepide-saretik neurtua): minus puntu 0,1. Gehenez 10 puntu kendu daitezkeelarik

Artisauentzako ere gune bat egongo da, lehentasuna emango zaie bertoko betiko ogibideekin lotutako artisaueri eta bestelakoak lekuaren eta antolatzaileek erabakitzen dutenaren arabera esleituko dira, eskualdeko azoketan parte hartzea ere kontuan izango delarik.

ESKAERAK AURKEZTEA ETA ESLEIPENA

Eskaera www.landagarapenaleaartibai.eus orriaren bidez gauzatu beharko da, azoken atalean dagokion atalean sartu eta eskatzen den informazioa betetz. Horrela ezinezko duenarentzat, jarri harremanetan eta izen emate orriak emailaz helaraziko dira. Dokumentazioa presentzialki aurkezteko aukera ere izango da Lea Artibaiko Landagarapenen bulegoan (Lea Artibaiko Berrikuntza Gunea, Xemein etorbidea 12. Markina-Xemein helbidean) edo eta imendizabal@leartibaifundazioa.eus helbide elektronikoa.

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 8an irekiko da eta eskaerak jasotzeko azken eguna 2026ko ekainaren 12a izango da.

Ez dira onartuko epeaz kanpo aurkeztutako eskaerak.

Eskariak aurkezteko epea amaitzean, eskari guztien azterketa egingo da eta eskumena duen organoak ebatziko du baimena ematea edo ukatzea. Erabaki hau hartzeko antolatzaileak, horrela uste badu, beharrezkoak ikusten dituen txostenak edo eta dokumentuak eskatu ahal izango dizkio egoki irizten dien partehartzaile-gaiei.

Ebazpena egin ostean, eskaria aurkeztu duten interesdunei idatziz erantzun goz zaie, azokarako baiezkotza zein ezezkoak izan.

DOKUMENTAZIOA

Ekoizleak:

- www.landagarapenaleaartibai.eus Web orrian, azoken atalean, dagokion azokan agertzen den ekoizleentzat galdetgia betetzea (Ekoizleen eskari orria)
- Azken autonomotako kuotaren ordainketa.
- IAEn altan dagoenaren ziurtagiria (Ogasuneko alta eta bajak)
- Aseguru poliza
- Irizpideak ziurtatzeko dokumentazioa:
 - ATP dela adierazten den kasuetan, ziurtagiria.
 - Titularra sozietatea den kasuetan, bazkietza adierazten den atala.
 - Baimendutako instalazioak dituztenen kasuan, erregistroaren ziurtagiria.
 - EAEko marka babestuen kasuan ziurtagiria.
 - Ibilgailu elektriko edo eta hibridoaren kasuan, ibilgailuaren fitxa.

Atal bakoitzerako puntuazioa eman ahal izateko, irizpidearen ziurtasuna izan beharko da, horrela ez bada, ez da puntuazioren kalkuluan kontutan izango.

Erakunde antolatzaileak, oinarrietan agertzen diren baldintzak betetzen dituela edo eta irizpideetan agertzen diren atalak baloratu ahal izateko, beren-beregi ziurtatu ahal izateko edozein dokumentazio gehigarri eskatu ahal izango dio partehartzaileari.

Artisauak:

- www.landagarapenaleaartibai.eus Web orrian, azoken atalean, dagokion azokan agertzen den artisauentzat galdetgia betetzea (Artisauen eskari orria)
- Dokumentazio gehigarria:
 - Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda daudenaren ziurtagiria
 - Gizarte segurantzakoa edo eta autonomoetako azken kuotaren ordainagiria.
 - Aseguruaren ziurtagiria.
 - Aintzat hartuko da erregistro-errola edo artisau txartela edukitzea.

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Salmenta egiteko baimena jasoko duten pertsonak ondoko eskubideak dauzkate:

- Baimena daukaten postua okupatu.
- Baimendutako salmenta gauzatu ahal izan, beti ere ezarritako baldintzen arabera.
- Azokaren funtzionamendua hobetzeko egoki deritzen erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu.
- Identifikatzeko txartela jaso.

Salmenta egiteko udal baimena jasoko duten pertsonak ondoko betebeharrak dauzkate:

- **Azokako hizkuntza eta lehen hitza:** herritarrentzako arreta euskaraz emango da, horretarako lehen hitza euskaraz egingo da. Hala ere, herritarrek edozein unetan erabili ahal izango dute

hizkuntza aukeratzeko eskubidea. Komunikazio-euskarrietan euskara bermatuko da (erakustokietako kartelak, errotuluak eta informazio orokorreko elementuak). Ekoizleak horretarako gaitasunik ez duen kasuetan udaleko laguntza jaso ahal izango du.

- Ekoizle bakoitzak bere produktua baino ezin izango du saldu, bere ustiatzean edo baimen sanitarioa daukan establezimendu baten ekoiztutakoak izan behar dute.
- Saltzaile bakoitza produktu motagatik aukeratua izan denez, produktu horiek bakarrik saldu ahal izango ditu.
- Egokitu zaion postua eta espazioa baino ez okupatu.
- Emandako identifikazioaren euskarriak edonork ondo ikusteko moduan edukitzea, bai kontsumitzaile zein udal agintaritzarentzat. Betebehar hau ez betetzeak postuaren altxatzea erakarri dezake eta baita ere, horrela badagokio, zigorra ezartzeko espedientea hastea.
- Momentu guztietan indarrean dagoen araudia errespetatu
- Merkaturatzen diren produktuen informazioa, euren prezioak, eta ekoizleak identifikatzeko kontsumitzaileak behar duen informazioa ondo ikusteko moduan eduki denbora guztian. Produktuen prezioak argi eta errakuntzara ez erodateko moduan egongo dira kartel edo etiketen bidez.
- Saltzaileen ibilgailuak ezarritako lekuetan aparkatuko dira.
- Erreklamazio orriak eskuragarri edukiko dituzte.
- Eskaintzen dituzten produktuak neurtu edo pisatzeko araututako baskula edo neurgailua eduki.
- Hotza eskatzen duten produktuak egokiak diren hozkailuetan gordeko dira.
- Ontziratatu gabeko produktuak pantailekin babestu behar dira.
- Ezin dira elikagaiak lurrian eduki.
- Erosleek eskatuz gero salmentako agiria jasotzeko eskubidea daukate (faktura edo tiketa). Bertan ondoko datuak agertuko dira:
 - Datu pertsonalak
 - NAN edo IFK
 - Egoitzaren helbidea
 - Data
 - Produktua
 - Prezioa
 - Kantitatea
- Sortutako hondakinak biltzen joango dira eta salmentako ordutegia amaitzen denean prestatutako puntuetara eramango dira, postua eta bere ingurua txukun utzi beharko ditu.
- Hasteko eta amaitzeko ordutegia errespetatuko da eta bitartean ezin izango da ibilgailurik salmenta esparruan sartu.
- Ekimenak irauten duen artean derrigorrez bete beharko dira begirune, txukuntasun eta garbitasun baldintzak. Saltzen dagoenak garbi egon behar du, baita ere aldean daramatzan arropak eta jarduerarako behar dituen tresnak.
- Produktua zatitzea baimenduta dagoen kasuetan derrigorrezkoa izango da salmenta-puntu horretan edangarria den ura egotea. Aukera dute txorrodun ur-biltegiak, xaboi likidoa eta paperezko zapiak edukitzea.

- Ontziratutako produktuak produzitzen dituzten ekoizle guztiek eduki beharko dute Elikadura Higieneari arloko Prestakuntza jasotzeko egiaztatzen duen Norbanako Ziurtagiria eguneratua, ortuari eta fruta kasuak ezean.
- Elikagaiak ondo ordenatuta jarriko dira ikusgai, sailkatuta eta banan, bakotzak bere ezaugarri berezietan eusteko eta usainak, zapora arraroak eta kutsadura ekiditeko
- Azoka amaitzen denean, salmenta-postua eta ingurua garbi eta txukun itxi beharko dute. Zoladurari, arbolei edo jabetza publikoko ondasunei kalteren bat eraginez gero euren izango dira kalteak konpontzearen erantzule. Horretaz gain, euren jardueraren ondorioz hirugarren bateri edo batzuei kalte edo galeraren bat sortuz gero (pertsonei edo euren ondasunei) kalte edo galera horien erantzule be izango dira. Beraz dagokien erantzukizun zibileko aseguruak eduki (eta hori horrela dela egiaztatuta) beharko dute.
- Etorkizunean indarrean egon daitezkeen araudiak betetzeko betebeharra, nahiz eta araudi honetan jasotako barik egon.
- Ekoizpen zentroak ikuskatu ahal izateko erraztasunak eman.

ZIGORTZEKO ERREGIMENA

Udalak zainduko du araudi honetan jasotako betebeharrak betetzea.

Bere eskumenen arabera udalak produktuak eta postuak ikuskatu ahal izango ditu eta horiei buruzko informazioa eskatu.

Saltzeko ipintzen diren produktuak osasun edo segurtasunerako arriskua ekarri badezakete, iruzurrekoak badira, faltsuak badira, identifikatu barik badaude edo saltzeko gutxienekoak ez badira betetzen espedienteak zabaltea ekar dezakete eta baita produktuak inkautatzea ere.

Beste entitate eta instituzioek dauzkaten zigortzeko eskumenetatik aparte agirian gelditzen diren faltak udalak zigortu ahal izango ditu, araudi honek ezartzen duenaren arabera.

Indarrean dagoen prozedura administratiboak arautzen du zigorrak ezartzea eta baita errekursoak ipintzea ere.

Baimena daukaten titularrak dira bere postua okupatzen duten kideen falta eta arau ez betetzearen erantzuleak.

ARAUAK EZ BETETZEA:

Ez betetzeak arinak eta larriak izan ahal dira.

- Arinak: araudi honetan jasotako baldintzak ez betetzea baina kontsumitzaileentzat kalte ekonomiko edo osasunerako eraginik ez dituztenak.
- Larriak:
 - Arau hauste sanitario larriak eta pertsonen osasuna arriskuan ipintzen dituztenak.
 - Kontsumitzaileei eragin larriak sortzen dizkienak.
 - Ordena ekonomikoa apurtzen dutenak.

ZIGORRAK:

Arau hauste arinak: Abisua edota 1.500€tarainoko isuna.

Arau hauste larriak: 9.000€tarainoko isuna edota hurrengo 4 ekimenetan berriro parte hartzeko eskubidea galtzea.

Espedientea ebatzi behar duenak produktuen inkautazioa ere erabaki dezake, faltsuak izateagatik edota identifikazio barik egoteagatik.

KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

Parte hartzaile guztiei jakinarazten zaie beraien datu pertsonalak erakunde antolatzaileak tratatuko dituela eta bere ardurapeko fitxategietan sartuko direla, azoka honetarako eskaera eta partaidetza, eta oinarri hauek onartzeagatik ezarriko den kontratu harremana kudeatzeko, baita erakunde antolatzaileak dituen betebeharrak legalak betetzeko ere. Zure datu pertsonalen tratamenduari edo datu horietara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, eramateko eta aurka egiteko duzun eskubideari buruzko informazio gehiago izango duzu eskaerak aurkezteko formularioko klausula espezifikoa. Halaber, datu pertsonalak babesteko eskubidea urratu egin zaiela uste badute, erreklamazio bat jarri ahal izango dute Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren (www.aepd.es) aurrean.

EZINBESTEKO KAUSAK

Interes publikoko edozein arrazoiengatik, agintari publikoek azoka egitea debekatuko balute, edo azoka egiteko antolatzaileen ustez bideragarriak ez diren baldintzak ezarriko balituzte edo beste kanpo arrazoiengatik azoka bertan behera utzi beharko balitzateke, kode zibilaren 1.105 artikuluan ezarritakoaren ildotik, parte-hartzaileek ezingo diote inolako zenbatekorik eskatu antolatzaileari merkatua bertan behera geratzeagatik.

AMAIERA

Oinarrien agiri honetan aurreikusi ez diren egoerak edo baldintzak erakunde antolatzailearen irizpideen arabera ebatziko dira eta bere erabakiei ezingo zaie errekurtsorik jarri.

Ondarroako Udala, sinadurako datan:

Urtza Alkorta Arrizabalaga alkatea.